

HAMAZORTZIGARREN ORDENANTZA FISKALA

KONTRIBUZIO BEREZIEI BURUZKO ORDENANTZA FISKAL OROKORRA.

I. XEDAPEN OROKORRAK.

Artículo 1.- Udal honek, Lurralde Historikoko Foru Arauean aurrikusita dagoen arabera, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, Kontribuzio Berezien gaineko Ordeanantza Orokorra onetsi du, horrek udalari dagozkion obrak egitea, eta zerbitzuak ezartzea edo haunditzea hartzen du barne.

2. Artikulua.- Ordenantza, udal barruti osoan, aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

3. Artikulua.- Kontribuzio berezien gaineko egitate zergagarria gertatuko da, subjektu pasiboak bere ondasunen balioa haunditzen duenean, edo horien gainean onura lortzen duenean, Udalak obra publikoak egiten dituelako, edo udal zerbitzu publikoak ezarri edo handitzen dituelako arrazoiz.

4. Artikulua.- 4,1.- Udalaren obra eta zerbitzuen izaera izango dute:

- a) Udalak bere ahalmenen barruan egiten dituenak berari atxikirik dauden helburuak bete ahal izateko, horietaz kanpo daude hala ere, haiek bere ondare-ondasunen jabe gisa egingo dituzten guztiak.
- b) Beste Ente Publikoren batek egotzi edo eskuordetu dizkionak izatearren, Udalak egiten dituen haiek, eta legeriaren arabera, titularitatea bereganatu ondoren, egiten dituenak.
- c) Beste Ente Publikoek egiten dituztenak, edo horien emakidadun direnak, baina udalaren ekarpen ekonomikoarekin.

4.2.- Aurreko zenbakiko a) letran barne sarturik daudenak ez dute udal obra eta zerbitzu izaera galduko, nahiz eta Erakunde Autonomo edo Merkatal Sozietate batek eginak izaten badira ere, baldin eta kapital soziala Udalari badagokio bere osotasunean, edo udalaren ekarpenekin emakidadunak egiten badu, edo zergadunen elkarre administratibo batek egiten badu.

5. Artikulua.- Kontribuzio bereziengatik bildutako kopuruak obra edo zerbitzuko gastuak ordaintzera bakarrik destinatu ahal izango dira, hain zuzen ere, zeregin horretarako eskatuko baitira.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

6. Artikulua.- 6.1.- Kontribuzio berezien subjektu pasiboak izango dira, pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 34 artikuluan agertzen diren Entitateak, baldin eta bereziki onuradun suertatzen badira udal obrak egitearren, edo zerbitzuak ezarri edo handitzearren, eta baldin eta zerga ordaintzeko obligazioa sortzen bada.

6.2.- Pertsona bati bereziki mesedea ekarri diola joko da:

- a) Obrak egin edo zerbitzuak ezarri edo haunditzearren ordaindu beharreko kontribuzio bereziak direnean, baldin eta ondasun inmutableei eragiten badie, inmueble horien jabeak.
- b) Enpresen ustiapenagatik obrak egin edo zerbitzuak ezarri edo handitzen direlako arrazoiz ordaindu beharreko kontribuzio bereziak direnean, horien titularitatea duten pertsonak edo entitateek ordainduko dituzte.
- c) Suhiltzaile zerbitzuak handitu edo hobetzeko xedez ordaindu behar diren kontribuzio bereziak direnean, afektaturiko ondasunen jabeek gain, baita, adar horretan, udal barruti barruan bere jarduera garatzen duten aseguru konpainiek ere ordaindu beharko dute.
- d) Lurpeko galeriak egitearren ordaindu beharko kontribuzio bereziak direnean, horiek erabili behar dituzten enpresa hornitzaileak.

6.3.- Jabetza horizontaleko erregimena den kasutan, jabetun komunitatearen ordezkariak Udal Administrazioari emango dio jabetzaren izena eta komunitatean horietako bakoitzak duen partehartze-koefizientea, horrela bakoitzaren kuota buruzko igorpena bidaltzeko. Horrela ez bada egiten, ulertuko da, onartzen dela kuota bakar bat bidaltzea, eta horren banaketaz komunitatea bera arduratuko dela.

IV. ZERGAREN OINARRIA.

7. Artikulua.- 7.1.- Kontribuzio berezien oinarri zergagarria gehienez honako hau izango da, obrak egitearren edo zerbitzuak ezarri edo haunditzearren, Udalak eutsiko dion kostu osoaren ehuneko 90a hain zuzen ere. Udalak ordenazioko erabakia hartzen duenean, kasu bakoitzerako, aplikagarria izango den portzentaia zehaztuko du.

7.2.- Aipatu kostua hurrengo kontzeptu hauetatik osatua egongo da:

- a) Adituen lanak, proiektuen idazketak eta obraren, planen eta programa teknikoaren zuzendaritzak sortzen dituen kostu errealak.
- b) Egin behar diren obrek eta zerbitzuak ezarri edo haunditzeko lanek sortzen dituzten zenbatekoak.
- c) Obra eta zerbitzuek modu iraunkorrean okupatu beharko lituzketen lursailen balioa kostu horretan sartua egongo da, ez badira behintzat erabilera publikoko ondasunak, Udalari obligazioz eta dohainik lagatako lursailak, edo legerian ezarritako terminoen arabera lagatako inmuebleak.
- d) Indemnizazioak, baldin eta badatoz, eraikinak eraisteagatik, landaketak, obrak edo instalazioak suntsitzearren, hala nola, eraitsiak edo okupatuak izan behar duten ondasunak errentan ematearen ondorioz.
- e) Obretan edo zerbitzuetan inbertitutako kapitalaren interesa, baldin eta Udalak kontribuzio bereziengatik bete gabe legokeen zatia finantzatzeko helburuz kreditua eskatzera jo behar duenean edo kontribuzio horrek bete arren horien zatikapen orokorra ematen bada.

7.3.- Obra eta zerbitzuetarako aurrikusitako kostu osoak, bakarrik aurrikuspen izaera eukiko luke. Kostu erreala aurrikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa izango balitz, hura hartuko litzateke kuoten kalkulua egiteko orduan.

7,4.- Baldin eta 4.1.c) artikuluan aipatzen diren obra edo zerbitzuak badira, edo obra horiek artikuluko bereko 2 zenbakian aipatzen den udal ekarpenarekin emakidadunak eginak badira, kontribuzio bereziei dagozkien oinarri zergagarria, ekarpen horien zenbatekoen arabera zehaztuko da, eta ez die kalterik eragiten beste Administrazio Publikoek obra edo zerbitzu horien gainean ezarri ditzaketenei. Edozein kasutan, artikuluko honetako lehen zenbakian aipatzen den %90ko muga errespetatuko da.

7,5.- Oinarri zergagarria zehazteko orduan, Udal Administrazioak jasaten duen kostua dela ulertuko da, kostu osoaren kopurutik Udal Administrazioak lor ditzakeen subentzio edo laguntzaei dagokien zenbatekoa kenduz ondorioztatuko dena.

7,6.- Baldin eta aipatu subentzioa edo laguntza kontribuzio bereziko subjektu pasibo batek emana izango balitz, horren zenbatekoa pertsona edo entitate horri dagokion kuota konpentsatzera destinatuko da lehenik. Baldin eta subentzio edo laguntzaren balioak kuota hori gaindituko balu, gehiegizkoak, prorratara, gainontzeko subjektu pasiboen kuotak murriztuko ditu.

V. KUOTA.

8. Artikulua.- 8,1.- Kontribuzio berezien zerga-oinarria subjektu pasiboen artean banatuko da, obra eta zerbitzuen mota eta izaera kontuan izanik, eta hurrengo arauetara makurtuz:

- a) Izaera orokorrarekin, batera edo banandurik aplikatuko dira, banaketa modulu gisa: inmubleetako fatxadetako metro linealak, horren azalera, horien eraikin-bolumena eta Ondasun Inmubleen gaineko Zergari dagokion balio katastrala.
- b) Suhiltzaile zerbitzua ezarri, hori haunditu edo hobetzea den kasuan, banaketa, arriskua estaltzen duten elkarte edo sozietateen artean egin ahal izango da udal barrutian kokatutako ondasunen bidez, justu aurreko urtean bildutako hobarien zenbatekoari dagokion proportzioan. Baldin eta subjektu pasibo bakoitzari eskatu behar zaion kuota hori bildutako hobarien % 5a baino altuagoa izango balitz, gehiegizkoa, hurrengo ekitaldietara aldatuko da guztia amortizatu bitartean.
- c) Ordenantza honetako 6. artikulua barruan, bigarren zenbakiko d) atalean aipatzen diren obrak diren kasuan, kontribuzio berezien zenbateko osoa erabilpena egingo duten konpainia edo enpresen artean banatuko da, hain zuzen ere, bakoitzari erreserbatutako espazioaren arabera edo horiek osatzen duten sekzio guztiko proportzioaren arabera, nahiz eta ez erabili segitutik.

9. Artikulua.- Aplikagarri den arautegiak edo Nazioarteko Itunek onura fiskalak aitortuko balituzte ere, onuradunei egokitu lezaizkiekeen kuotak ez dira inolaz ere gainontzeko zergadunen artean banatuak izango.

10. Artikulua.- Ordaindu beharreko kuota zehaztu ezker, Udalbatzak eman ahal izango du, subjektu pasiboak horrela eskaturik, haren zatiketa edo luzamendua, gehienez ere bost urteko epean.

VI. ZERGAREN SORTZAPENA.

11. Artikulua.-11,1.- Kontribuzio bereziak, obrak eginak dauden momentuan edo zerbitzua eskaintzen hasten den unean, sortuko dira. Baldin eta obrak zatikagarriak izango balira, subjektu pasibo bakoitzarentzat sortzapena gertatuko da, obraren tarte edo zati bakoitzari dagokiona eginda egoten denean.

11.2.- Aurreko zenbakian erabakitakoaren kalterik gabe, ezarketa eta ordenazioko erabaki zehatza behin onetsitakoan, Udalak aurretiaz eskatu ahal izango du kontribuzio berezien ordainketa, hurrengo urterako aurrikusitako gastuari dagokion zenbatekoan oinarri hartuta. Ez da beste urtealdi berri baten aurrerakinik eskatu ahal izango, obrak egin gabe baleude, justu, aurreko aurrerakina horretarako eskatu baitzen.

11.3.- Kontribuzio bereziak sortzen diren unean kontuan eukiko da, ordainketako obligazioa duen pertsona zehaztu behar dela 6. artikuluan erabakitakoaren arabera, nahiz eta ordenazioko erabaki zehatzean subjektu pasibo gisa horren onespenera datan agertzen dena agertu eta nahiz eta kuotaren ordainketa aurreratu balu ere, artikuluko honetako bigarren zenbakian erabakitakoaren arabera. Ordenazioko erabaki zehatzean subjektu pasibo gisa agertzen den pertsonak eta horri buruzko jakinarazpena jaso izan ondoren, ondasun edo ustiapenen gaineko eskubideak besterentzen dituenean, eskubide horiek arrazoitzen baitute ezarpena, erabaki hura onetsi zenetik sortzape hori gertatu bitarteko epealdian, obligazioa izango du egindako besterenganatzearen berri Udala Administrazioari emateko, hori egin zenetik hilabeteko epe barruan, eta horrela ez balu egingo, aipatu Administrazioak ekintzak burutu ahal izango ditu kobrantza hori egin ahal izateko, espedientean subjektu pasibo gisa agertzen zenaren aurka.

11.4.- Behin obra guztiz edo horren zati bat amaitu ezker edo zerbitzuaren eskaintzari hasiera eman ezker, seinatu egin beharko dira, bai subjektu pasiboak, bai behin betiko oinarria eta bakoitzari dagokion kuota, eta jarraian egoki liratekeen kitapenak igorri beharko dira eta konpentsatu egin beharko dira aurretik kontura egindako ordainketak. Aipatutako behin-betiko ezarpen hori Udala Administrazioak egingo du eta horrek zerga ordaintzeko erabaki zehatzaren arauak bete beharko ditu, hain zuzen ere, obra edo zerbitzu baterako hartu direnak.

11.5.- Baldin eta aurretik egindako ordainketak, zergaren sortzapenera datan subjektu pasiboaren izaera ez duen pertsona batek eginak, izango balira edo egokituko litzaiokeen behin-betiko kuota indibidualetik goragokoa izango balitz, Udala Administrazioak, ofizioz, legokion itzulketa egingo du.

VII. EZARPENAK ETA ORDENAZIOA.

12. Artikulua.-12,1.- Kontribuzio berezien ordainarazpenak kasu bakoitzean, aurretik ezarpeneko erabakia hartzea eskatzen du derrigorrez.

12.2.- Obra bat egiteko edo zerbitzu bat ezarri edo haunditzeko hartu beharreko erabakia, hori kontribuzio berezien bidez ordaindu behar denean, ez da burutzerik izango horien ordenazio zehatza onetsi bitartean.

12.3.- Ordenazioko erabakia derrigorrez hartu beharrekoa da eta obra eta zerbitzuetarako aurrikusitako kostua hor jaso egon behar du, eta baita onuradunen artean banatuko den kopurua eta banaketa egiteko irizpideak ere. Ordenazio zehatzaren erabakia Ordenantza honetan oinarrituko da.

12,4.- Behin kontribuzio berezien ordenazioko erabaki zehatza hartu denean eta behin ordaindu beharreko kuotak zehaztu direnean, horiek subjektu pasibo bakoitzari jakinaraziko zaizkio, baldin eta hori edo horren helbidea ezagutuko balira, eta horrela ez balitz, ediktu bidez jakinaraziko zaio. Interesatuak birjarpeneko helegitea formulatu ahal izango dute Udalaren aurrean, edo bere kasuan, Lurralde Historikoko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren aurrean helegite ekonomiko-administratiboa jarri ahal izango dute, horrek kontribuzio berezien egokitasunaz hitzegingal izango du, bereziki mesedetuak izan diren pertsonak ordaindu behar dituzten kostuaren portzentaiari buruz edo atxiki zaizkien kuotei buruz.

13. Artikulua.-13,1.- Udalaren eskuduntzakoak diren obra eta zerbitzuak Udalak berak egin edo eskaintzen baditu baina beste Toki Entitate baten laguntzarekin, eta baldin kontribuzio bereziak ezartzen badira foru-arauetan ezarrita dagoenaren arabera, horien kudeaketa eta bilketa, obrak egin edo zerbitzuak ezarri edo haunditzea bere gain hartzen duen Entitateak egingo du, nahiz eta kalterik ez dion eragingo entitate bakoitzak ezarketa eta ordenazioko erabakiak hartzeko orduan dituen eskuduntzak euki eta mantentzeari.

13,2.- Ordenazioko erabaki zehatza horietako entitateen batek ez balu onetsiko, eraginik gabe geldituko litzateke iharduera burutzeko batasuna, eta bakoitzak bere kabuz egoki liratekeen erabakiak hartu beharko litzuke.

VIII. HERRITARREN LANKIDETZA.

14. Artikulua.-14,1.- Obren eraginpean geratzen diren jabeek edo titularitatea dutenek zergadunen elkarte administratiboa osatu ahal izango dute eta obrak egitea edo udal zerbitzuak ezarri edo haunditzea eska dezakete, eta konpromisua har dezakete Udalak egin beharreko ekarpena beren gain hartzeko baldin eta udalak duen egoera finantzarioak eraginda ekarpen hori egiterik ez balu, gainera horrezaz aparte beren ekarpena egin beharko dute obra edo zerbitzuaren izaeraren arabera.

14,2.- Halaber, Udalak sustaturiko obrak egin edo zerbitzuak ezarri edo haunditzearen eraginez, afektaturik suertatzen diren jabeek edo titularitatea dutenek zergadunen elkarte administratiboa osatu ahal izango dute, eta hori egin ahal izango dute, kontribuzio berezien ordenazioko erabakia jendaurreko jartzen den epean.

15. Artikulua.- Aurreko artikuluan aipatzen diren elkarte administratiboak osatu ahal izateko, afektaturiko gehiengo absolutuak onartu egin beharko du hartutako erabakia, eta gehiengo horrek bestalde, gutxienez, ordaindu behar diren kuoten artetik bi herenak ordezkatu beharko ditu.

16. Artikulua.-16,1.- Zergadunen Elkarteetako funtzionamenduak erregelamenduzko arauak erabakitakora makurtu beharko du, eta arau horiek bestalde, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Araua garatzen dute.

16,2.- Edozein modutan, zergadunen elkarte administratiboak hartutako erabakiak, gehiengo absolutu bidez hartuak badira eta gehiengo horrek, ordaindu behar diren kuoten artetik bi herenak, ordezkatzeko baditu, gainontzeko guztiei ere eragingo die. Baldin eta Elkarte horrek aipatu quorumarekin Batzorde edo Junta Egikaritzaila izendatzen badu bere barnean, horrek hartutako erabakiak indarra izango du gainontzeko interesatuak behartzeko.

16,3.- Zergadunen Elkarte Administratiboek, 14. artikuluko lehen eta bigarren zenbakian erabakitakoaren arabera osatu direnean, Udalari eskatu ahal izango diote obra eta zerbitzuak zuzenean burutu ditzala.

Horretarako, hurrengo baldintzok eukiko dira kontuan:

- a) Obra edo zerbitzuen egitea Udal Administrazioak proiekturako ezarri dituen baldintza eta epeei jarraiki egin beharko da, edo gutxienez, Elkarteak aurkeztu eta Udalak onespena eman dion proiektuaren araberak.
- b) Aipatu egitea, edozein kasutan, Udalak izendatutako terminoei atxikirik egingo da.
- c) Elkarteak egingo da bai interes publikoei bai interes pribatuei eragin lezaizkiekeen kalte eta galeren erantzule, hala nola horiek burutzean egon daitekeen atzerapenaren eta obraren behin-betiko entrega egiten denetik hasi eta hurrengo bost urtetan ager daitezkeen akats izkutuen erantzule ere.
- d) Zergadunen elkarte administratiboek egin ditzaketen proposamenak onartu edo errefusatzeko ahalmena bere esku izango du Udalak, aipatu obra eta zerbitzuak egiteari dagokion bezainbatean.
- e) Obra eta zerbitzuei udalak egingo dien ekarpena, baldin eta egongo balitz, obra edo zerbitzuaren behin-betiko entrega egin ondorengo unean ordainduko litzateke.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza honi, behin-betiko onespena eman zitzaion, eta indarrean sartuko da 2006ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean jarraituko du, hori aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.